

Hizkuntza prestakuntza: ingelesa

Aurten ere aukera daukagu gure Prestakuntza Proiektuan 20-30 ordu ingeles ikastaroa egiteko.

Aurreko ikastaroaren balorazio positiboa izan arren, maila zehatzagoa planteatzea guztien eskaera izan zen. Ikastaroaren diseinua prestatzeko jakin behar dugu zeintzu diren benetako interesak.

MESEDEZ, interesatuta bazaudete, hautatu eskema hauen artean, irailaren 19a baino lehen:

A.Ingelesa interneten edo webean aritzeko: 12-15 ordu (1. hiruhilabetean)

- Gutxi edo oso gutxi dakitenentzat

- Edukia: web-glosarioak; irakurketa estrategia oinarrizkoak; itzultzaile tresnen erabilera; ...

B.Oinarrizko ingelesa: 15-18 ordu (1. edo 2. hiruhilabetean)

- Hasi berrientzat, edo oso gutxi dakitenentzat

- Edukia: hizkuntzaren oinarrizko erabilera

C.Ingelesaren erabilera irakasle lanarekin lotuta: 15-18 ordu (2. hiruhilabetean)

- Ingelesa dakitenentzat lanarekin lotura duten trebetasunak garatu nahi dutenentzat.

-Edukia: Ulermena: informazioa edo ikasketarako testuak; ahozko ulermena landu; idatzizko ekoizpena: mezuak, guunak, e-mailak, webeko publikatzeko lantxoak (blog, wiki, ...); oinarrizko elkarrizketa, etab.

Prestakuntza honetan parte hartzeko interesa baduzu, mesedez zure aukera adierazi.